

Irakurle agurgarria,

**Maristak Durango Ikastetxeak**, Kudeaketa Sistema Integralaren baitan dagoen Ingurumen Kudeaketa Sistemaren bitartez bideratzen du bere ingurumen-portaera. Hauek dira jarraitzen ditugun ildo nagusiak:

- Indarrean dagoen araudia.
- Alde interesatuen parte-hartzea.
- Ingurumen errendimenduaren etengabeko hobekuntza, gure jarduera eta zerbitzuek eragin ditzaketen aztarnak gitxiagotzea edota ezereztutzea.

Etengabeko hobekuntza hau, Bizi Zikloan oinarrituz eta helburuen planifikazioa, proiektu eta zerbituzen abiatzea eta garapena, neurketa eta egiaztapenaren baitan gauzatzen dugu.

**Ondoren ikus ditzakezu 2022-23 ikasturtean zehar Maristak Durango ikastetxeak izandako ingurugiro jokaera.**

Agur bero bat,




maristak  
San José Ikastetxea - Durango  
www.maristak.com

**Egoitz Mezo Etxebarria**  
**Maristak Durango Ikastetxeko Ingurugiro kudeatzailea**


**Durango 2023/06/18**

**ENERGIA ETA UR HORNIDURA**


**GASAREN KONTSUMOA [KWo/Ikasle]**



**ARGINDARRAREN KONTSUMOA [KWo/Ikasle]**



**URAREN KONTSUMOA [m3/Ikasle]**



Aurreko hiru urteetako batz-bestekoarekin alderatuta energia eta ur horniduran gitxiagoak lortu ditugu; nabarmenena, gasaren jaitsiera %38,56. Argindar eta uraren kontsumoak ere bera egin dute: %18,01eko gitxiagoa argindarrean eta %11,88koa ur horniduran.





Gasa (KWo/Ikasle)	297,98	-38,56%	<ul style="list-style-type: none"> <li>Gasaren kontsumoa aldakorra da, eta neguan jasandako tenperaturen baitan dago. Aurtengo negua aldakorra izan da, berandu heldu zan, baina hotz handia eta egun askotan zehar egin zuen. Kontsumoaren beherakadaren arrazoia, arratsaldeko aktibitatearen jaitsieran eta ikastaroen gelen aukeraketa egokian dago.</li> </ul>
Argindarra (KWo/Ikasle)	161,92	-18,01%	<ul style="list-style-type: none"> <li>Argindarraren kontsumoak joera positiboa du; ikastetxeak LED argiteriaren eta BYOD ereduaren alde egindako apustuaren ondorioz.</li> </ul>
Ura (m3/Ikasle)	1,82	-11,88%	<ul style="list-style-type: none"> <li>Aurreko hiru urteetako batz bestekoarekin alderatuta, kontsumoak beherea egin duen arren, joera egonkortze aldera doala dirudi.</li> </ul>





**Argiteriaren %65a LED motakoa da gaur egun.**

**Arratsaldeetako ikastaroaren kokapen estrategiak, gasaren kontsumoaren optimizazioa ekarri du.**


**BULEGOKO MATERIALAREN HORNIDURA**





	Aurreko hiru urteetako batz-bestekoarekin alderatuta beherantzako joeranabarmena da: %50 eta %30 bitartekoak. kontsumoaren gitxiagotze nabarmenena tonerrarena (%49,60) izan da, baina besteek be joera oso ona aurkezten dute: arbeleko rotulkietan (%35,04), paperean (%31,41) eta pila kontsumoan (%30,46).			
	Tonerra (Unitate/Ikasle)	0,011	-49,6%	<ul style="list-style-type: none"> <li>Orain arte, tonerrak eta paperak pareko jaitsierak izan dituzte, baina aurten, parekotasun hori apurtu da. Honen arrazoia, mintegietako inpresoren ordeztu ikastetxeko fotokopiagailu orokorrean inprimatzen ohitu garena da. Urtero beherakada izaten dugun arren, kontsumoa egonkortze fasean sartu dela ematen du.</li> <li>Gero eta eduki, tresna eta baliabide digital gehiago erabiltzen dugu, eta arbela fisikoaren erabilera txikiagoa da.</li> <li>Pilen kontsumoa aldakorra izan ohi da, aurten, jaitsiara nabarmena.</li> </ul>
	Papera (Tako/Ikasle)	0,296	-31,41%	
	Arbeleko rotulki (Kg/Ikasle)	0,512	-35,04%	
	Pilak (Unitate/Ikasle)	0,057	-30,46%	

	<b>ETHAZI metodologia.</b>
	<b>Digitalizazioa (lainoa): GlobalEduca komunikazio plataforma, Moodle, Classroom, Google Drive, Microsoft OneDrive.</b>
	<b>Digitalizazioa (gailuak): BYOD (ikasle bat gailu bat).</b>




**ARRISKUTSUAK EZ DIREN HONDAKINAK**





	Aurreko urteetako datuekin alderatuta, ikastetxeko hondakin banaketa maila, kantitatea eta kalitatea kontutan izanda hobetzen doa.	
Suntsitutako papera (Kg/Ikasle)	0,89	-5,41%
Birziklatutako paper/kartoia (Kg/Ikasle)	0,48	-74,93%
Errefuxa (Kg/Ikasle)	0,43	-29,74%
Ontzi arinak (Kg/Ikasle)	0,38	-8,87%
Organikoa (Kg/Ikasle)	0,94	-54%
	<ul style="list-style-type: none"> <li>● Paperaren erabilerak behera egin du, horren ondorioz, edukiontzi urdinera birziklatzera botatzen dugun paper eta kartoi kantitateak ere behera egin du.</li> <li>● Edukiontzi horian jasotako kantitateak gora doa urtero, organikoak baita ere, eta errefuxak behera, eta hau, guztion sentsibilizazio maila altuagoa danaren adierazle bat da.</li> </ul>	

	<b>Puntu garbiak, organikoaren bilketa eta ikasturte hasierako sentsibilizazioa.</b>
---	--

**HONDAKIN ARRISKUTSUAK**





	<p>Aurreko hiru urteetako batzuekin alderatuta aspektu batzuen joera negatiboa dela dirudi, baina banan-banan azaldu beharra dago:</p>		
<p>Kutsatutako xur. (Kg/Ikasle tailer)</p>	<p>0,28</p>	<p>44,20%</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Kutsatutako xurgatzaile hondakien kantitateak goeranzko joera azaltzen du, baina bizikleta konponketa tailerraren erabilaren eraginez da. Datorren urteetan aurtengo mailan egonkoritu beharko litzateke.</li> </ul>
<p>Ur hondakina (Kg/Ikasle tailer)</p>	<p>1,01</p>	<p>-27,71%</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Tailerra garbitzeko erabiltzen den ur kantitatea optimizatzen gabiltza urterik urte, eta honen adierazle, batutako ur hondakin kantitatea da.</li> </ul>
<p>Lanpara (Kg/Ikasle)</p>	<p>0</p>	<p>—</p>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Lanpara hondakinik ez dogu jaso aurten, biltegian dugun kutxa bete arte ez baitugu husten.</li> </ul>

	<p><b>Zorua garbitzeko makinaren eraginkortasuna.</b></p> <p><b>Bizikleta konponketa eta mentenimendu espezializazioa eta inguruan sortu diren ikastaroak.</b></p>
---	--

**MUGIKORTASUNA**





	<p>Mugikortasunaren arloan, joan-etorri jasangarrien kopuruak goraka egin du nabarmen, aurreko hiru urteetako batzbestekoa bikoiztuz. Bestalde, COVID-aren aurreko mailetara heldu ez garen arren, mugikortasun ez jasangarriak gorako joera azaltzen du, baita pertsona bakoitzak batz beste egindako kilometro kopuruak.</p>		
Bidai jasangarri (Kop./Pertsonak)	2,85	99,99%	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Bidai jasangarri kopuruak gora egin du nabarmen. Badirudi bizikletaren erabilera sustatzeko egindako ekintzek emaitzak emoten hasi direla.</li> </ul>
Bidai ez jasangarri (Kop./Pertsonak)	6,59	19,51%	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Pertsona bakoitzak batz beste egindako kilometro kopuruak, ikastetxearen aktibitatea normaltasunera bueltatu danaren seinale argia da, COVID aurreko maila berdintsuan bait gaude.</li> </ul>
Distantzia (Km/Pertsonak)	499,6	52,15%	

	<p><b>Langilegoaren sentsibilizazioak, bizikleta eta oinez egindako joan etorri kopuruengan eragin zuzena du.</b></p> <p><b>Bizikletaren erabilera sustatzeko ekintzak: eskolako bizikletak, azpiegitua, joan-etorriak diruz saritzea...</b></p>	
---	--	--

**KARBONO AZTARNA**

**KARBONO AZTARNA [t CO2 baliokide/Ikastle]**



	Karbono aztarnaren grafikoak egonkortzeko joera azaltzen duen arren, aurten izandako langilegoaren joan etorrietako kilometroen batz besteko gorakada ez da igartzen.		
Karbono aztarna (t CO2 ba./Ikasle)	0,1311	-15,73%	Gaur egungo mailan egonkortzeko joera azaltzen du.

	<p><b>Nazio Batuen 2030 Agenda eta Garapen Iraunkorrerako Helburuekin lerrokatzea.</b></p> 
---	--




**EGINDAKO EKINTZA NABARMENENAK**



Ikasle eta langileon artean bizikletaz mugitzeko erreztasunak emateko asmoz, **kaskoa, jaka eta bestelako jantziak giltzapean izteko takillak, gurpilak puzteko puzagarria, eta aparkalekuko segurtasuna bermatzeko bideokamera bat jarri dugu.**



Ikasleen mugikortasun ohiturak aldatu eta **bizikletaren erabilera sustatzeko**, honelako kartelak jarri ditugu ikastetxeko sarrera eta toki garrantzitsuenetan.







**Murgilketa gela berria:** Errealidade birtualean murgiltzeko instalazio barri bat jarri dugu martxan. Bertan, edozein ingurune, prozesu, makina... sortu daiteke eta errealitate horretan murgilduz modu praktikoa batean ikasi daiteke.

**75" telebista pantaila eramangarriak jarri ditugu zenbait gelatan.**



**Bizikleta konponketa eta mantentze tailerra.**



**Grabaketa estudio berria:** Eduki digitalak sortzeko grabazio estudio berria jarri dugu.

**Gela hibridoa:** Online + aurrez aurreko saioak momentu berean emateko aukera baliatzen duen gela berria martxan dago jada.



**Ikasleentzako gune-atsegin berriak:** Ikastetxeko pasiloetan ikasleak batzeko gune atseginak sortu ditugu. Horretarako, hainbat palet eta erabiltzen ez ziren takillari, aulki biurtu eta bigarren bititza bat eman diegu.



**Karteleria digitala:** Ikastetxeko sarreretan 75"tako monitore bi jarri ditugu. Bertan, besteak beste, ingurugiroa zaintzeak duen garrantzia eta sentsibilizazio mezuak agertuko dira.



**Batzar gela eta kapera berria:** Maristen komunitatean, hainbat espazio barri sortu ditugu: Irakasleontzako atsedeen gela eta jantokia, batzar gela eta kapera.



**Geletako papera eta kartoia birziklatzeko sistema aldatu dogu.** Irakasle mahaietan kutxatxo urdinak jarri ditugu, kalitatezko birziklapen bat egiteko.

**Aurten ere ISO 9001:2015 eta ISO 14001:2015** auditoretza gaingitu dugu!  
**Indarguneak:**



- Zuzendaritza taldearen eta sistemaren rol garrantzitsuen lidergoa eta konpromisoa.
- Langile guztien inplikazioa Kudeaketa Sistema Integratuarekin
- Murgiltze-gelako ekipamendua.
- Informatika-tresnak erabiltzea, heziketa-ziklorako behar diren baliabideak ikasleen eskura jartzeko.
- Kudeaketa plana osatzen duten ekintzak 2030 Agendaren GJHak integratzea eta prozesuka hedatzea.
- Ingurugiro txostena.



**Garapen Jasangarrirako 2030 Agendako Helburuen inguruko formazioa:** Otsailak 7an Ekodelegatuentzat zuzendutako ikastaroa antolatu genuen. Eta otsailak 15ean langileoi zuzendutakoa.

Elektrizitate/Elektronika arloko **ikasleek energia barriztagarrien eta energia eraginkortasunaren hobetze sistemen** inguruko tailer teoriko-praktikoan hartu zuten parte Aelvasa enpresaren eskutik.

